

Lotu deskribapena dagokion irudiarekin

Erreparatu beheko geltoki berezi hauei. Horietako bi geroago entzungo duzun audioan agertuko dira. Aukeratu deskribapen bakoitzari dagokion metro-geltokia. Geltoki hauetatik zein gustatzen zaizu gehien? Zergatik? Komentatu taldean.



Pariseko Arts et Métiers geltokia


Geltoki hau izen bereko museoaren azpian dago eta metalez estalia dago. Bere hormak kobre kolorekoak dira. Nahiko itxura hotzekoa da, egia esan.



Stockholmeko Centralstation

Barroko estiloan eraikitakoa da, eta horman badira zenbait mural eta marrazki. Gainera, marmolak presentzia handia du geltoki honetan. Horrek dotore itxura ematen dio.

Argiaren kupula izeneko pieza nagusia dago bertan. Kupula hori kristalezko egitura handiena da. Ikusgarria da, benetan. Ezagutzen duten askok kasino baten itxura hartzen diote.



Taiwaneko Formosa Boulevard

Bertako galeria gehienak margotuta daude, hormaren arrokan bertan gainera, eta batzuk kolore biziak. Lurpeko museorik luzeena omen da. Bertan, 150 artista baino gehiagoren muralak, eskulturak eta margoak aurkituko dituzu.



Moskuko Kiyevskaya geltokia